



memoria



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

2019ko jardueraren memoria
Sareen Sarea
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala

Diseinua eta maketazioa:
Sareen Sarea, 2020.

Laguntzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURKIBIDEA

1	SAREEN SAREAREN AURKEZPENA	
	Sare bazkideak.....	5
	Ikuspegia, misioa eta balioak.....	5
	Erakundea	8
2	ZER EGIN DUGU 2019an?	
	EHSS indartzea eta dinamizatzea.....	10
	Gobernantza eta eragin proaktiboa	14
	Harreamanak eta aliantzak.....	20
	EHSSren posizio soziala	23
3	JARDUERA ETA EKITALDIAK	
	2019an zehar parte hartu dugun beste jarduera eta ekitaldiak	28
4	KOMUNIKAZIOA	
	Sareen Sarea komunikabideetan.....	29
	Sareen Sarea sare sozialetan	30
5	KONTUAK ARGI	
	2019ko diru-sarrerak eta gastuak	31

Nor gara?

Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen sareak biltzen dituen elkarte da. Sorrera formala 2014ko apirilaren 8an izan bazuen ere, hura sortzeko ideia urte batzuk lehenago sortu zen, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian.

Historian, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek sakabanatuta eta atomizatuta egon izan dira. Hori dela eta, azken urteetan presentzia, aitorpena, elkarrizketarako gaitasuna eta eragin politikoa handitzen laguntzen dieten sare eta federazioetan artikulatzeko ahalegina ikus daiteke.

Sareen Sarea hainbat alorren eta lurralderen bat egitearen adierazpide agerikoena da. Euskadiko Hirugarren Sektore guztia batzeko helburuz sortu zen, eta kohesio eta parte-hartze handiagoa dituen gizarte justuago eta solidarioago baterantz aurrerapausoak emateko helburuz. Esklusiboki alderdi ekonomikora bideratuta dagoen eta pertsonen erreparatzen ez diren garapen-eredu baten aurrean kritikoagoa den gizarte bat du helburu, eta gizarte-eredu gizatiarrago baterantz aurrerapausoak emateko proposamenak eta alternatibak sortu nahi ditu kolaborazioaren bidez.

Sare bazkideak

2019an, guztira, 15 sarek osatu zuten Sareen Sarea:



Astialdi Sarea



Coordinadora de ONGD Euskadi



EAPN Euskadi



EHLABE



Elkartean



Euskofederpen



FEDEAFES



FEVAS



Gizatea



Harresiak Apurtuz



Hirekin



Hirukide



Lares Euskadi



ONCE



REAS Euskadi

Ikuspegioa, misioa eta balioak

Ikuspegia

Sareen Sarearen helburua hau da: gizarteak Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialaren erreferente eta aglutinatzaile gisa ikustea, gizarte- eta politika-alorreko hainbat eragilerengan eragiteko eta haiekin hitz egiteko gai dena; gizarte justua, kohesionatua, inklusiboa, solidarioa, parekidea, parte-hartzailea eta demokratikoa eraikitzen laguntzen duena; inklusio soziala, bizi-kalitatea hobetzea eta pertsonen eskubideak efektiboki betetzea defendatzen duena; sektorearen egituraketan ekarpena egiten duena Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala indartsuagoa eta kohesionatuagoa izan dadin, betiere duen aniztasunari erreparatuta.

Misioa

Gizarte kohesionatua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzailea sustatzea, pertsona guztien eskubideak berdin errespetatuko dituen, zaurgarrienei arreta berezia eskaintzen diena, eta ongizate kolektiboaren eta eraldaketa sozialaren bidez, hiritar guztien konpromiso aktiboa sustatzea. Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala bateratua, sendoa eta aitortua izan dadin lan egiten dugu, eta hark gaitasuna izan dezan gizarteko eta instituzioetako eragileetan eragiteko eta haiekin elkarriketak izateko.

Balioak



Elkartasuna

Babesgabeen eskubideen erantzukizuna.



Eraldaketa

Eraldaketa sozialarekin erantzukizuna eta konpromisoa, eskubideen aldarrikapena eta defentsa, hiritarren parte-hartze eta erantzukizun aktiboa sustatuz.



Gardentasuna

Kudeaketan erantzukizunez jokatzea; horretarako, erabakiak hartzean eta informazioa maneiatzean gardenak izatea eta erakunde-kideek, administrazio publikoek, gizarte-eragileek eta gizarteak bertara sartzeko aukera izan dezaten bermatzea.



Kooperazioa

Hirugarren sektoreko erakundeekin (eta beren artean), administrazioarekin, eta hiritarrekin, hiritarren helburu komunak eta esperotako misioa betetzen direla bermatzeko.



 Pluraltasuna

Sareen Sarearen baitako aniztasuna eta sektoreko aniztasuna aitortzea, eta barne-demokraziaren eta parte-hartzearen bidez beren ordezkagarritasuna bermatzea.

 Independentzia

Pentsamenduan eta ideologian eta independentzia instituzionala, politikoa eta ekonomikoa, gizarte-eragileekin duen harremanean eta eraginean faktore horiek nahas ez daitezen.

 Demokrazia


Erantzukizun komuna eta parte-hartze ekitatiboa eta inklusiboa sustatzea misioari eta ikuspegiari dagokionez, eta erabakiak elkarrekin hartzea kide guztiak ados dauden diskurtso, posizionamendu eta akordioak lortzeko.

 Autonomia

Sare bakoitzaren errealitatearekiko autonomia eta Sareen Sarearen diskurtsoa, posizioa eta aldarrikapenekiko errespetua, interes komunen aldeko lan eginez.



Erakundea



Biltzar Nagusia

Sareen Sarearen Biltzar Nagusia erakundearen erabakitzeko organo gorena da. Gutxienez urtean behin elkartzen da, eta entitate bazkide guztiek osatzen dute.

Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Batzordea, Batzar Nagusiaren xedapen eta arauei jarraikiz elkartearen interesak zuzentzen, kudeatzen eta ordezkatzeko dituen gobernu-organismoak dira. Entitate bazkideek bakarrik izango dute gobernu-organismoan parte hartzeko aukera. Zuzendaritza Batzordea entitate bazkide guztiek osatuko dute, eta bakoitza berak aukeratu duen pertsona fisiko batek ordezkatzeko du. Gutxienez hiru hilean behin egin beharko dute bilera, jarduerak sozialak garapenak ahalbidetzen badu. Orain hilean behin egiten dute bilera.

Lan-batzordeak

-  Komunikaziorako eta sentsibilizazio sozialerako Batzordea
-  Eragin Politikotako Batzordea
-  Barne Sendotzerako Batzordea
-  Legegintza garatzeko Taldea

Talde teknikoa

2019an hiru pertsonak osatu dute talde teknikoa: koordinatzaileak, idazkaritza teknikoak eta komunikazio-teknikariak.



¿Zer egin dugu 2019an?

2.1. Euskadiko hirugarren sektore soziala indartzea eta dinamizatzea

2019an egin diren Zuzendaritza Batzordearen bederatzi bileretan eta Batzar Orokor batean, modu eraginkorrean jardun dute sarearen barneko lan egiteko modua finkatzen. Arin adostu ditugu irizpideak eta hartu ditugu erabakiak; era berean, EHSSko sareen arteko kooperazioa sustatu dugu.

Sendotzea, egituratzea eta barne-antolakuntzan aurrerapausoak ematea (Plan Estrategikoa eta Komunikazio-plana hedatzea, Fiare Banku Etikoarekin finantziazio-hitzarmena, 2020an I. EHSSren Kongresua egitea onartzea...) eta **eragin politikoko gaiak eta sektorea** sustatzea (legeria, erakundeen arteko harremanak, EITBrekin hitzarmena...).

Batzorde eta lan-talde hauek oso aktiboki jarraitu dute lanean aurtten:

- ➡ **Komunikaziorako eta Sentsibilizazio Sozialerako batzordea.** Hamabost saretatik lauk osatzen dute, bederatzi bilera egin dituzte eta nagusiki komunikazio-kanpainan eta EHSSren Egunaren prestaketan, 2020ko Kongresuan eta EITBren eta sarearen arteko hitzarmenean jardun dira.
- ➡ **Eragin politikorako Batzordea.** Zazpi sarek osatzen dute eta sei bilera egin ditu, hirugarren sektore sozialaren jarduerarekin lotutako gai guztiak lantzeko eta beste gizarte- eta politika-eragile batzuekin harremanak hasteko.
- ➡ **Barne Sendotzerako Batzordea.** Lau sarek osatuta dago, eta zazpi bilera egin ditu hirugarren sektore soziala, haren egitura eta barne-kohesioa indartzeko.
- ➡ **Legegintza Garatzeko Taldea.** Lau sarek osatuta dago, eta Kontzertu Sozialaren Dekretuaren inguruan jarraitu du lanean.



Euskadiko HSSren guztizko balioa eta balio erantsia

Aurrerapausoak eman ditugu 2019an HSSk “**Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Guztizko Balioari eta Balio Erantsiari**” egiten dion ekarpenaren inguruan erakundeek eta sareko kide diren sareek partekatutako planteamendu bat egiteko. 2018an onartutako 56 adierazleak EHSSko entitateen autoebaluazio-sistema eta etengabeko hobekuntza jasotzen dituen **online galdetegi** batean islatu ditugu.

Sektore bakoitzean 17 entitate hautatu ditugu, eta **aurretest** bat bete behar izan dute tresnaren eraginkortasuna kontrastatzeko. Azaroan eta abenduan bilerak egin ditugu entitate horiekin tresna aurkezteko, eta proba egin ondoren, haien ekarpenak jasotzeko.

Lortutako emaitzetan oinarrituta, erabaki batzuk hartu dira tresna egokitzeke, 2020an **hirugarren fasera** igarotzean, sektoreko entitate guztientzat eskuragarri jartzeko modukoa izan dadin.

Euskal Gorrak elkartearekin lehenengo harremana

Maiatzaren 24an bilera bat egin genuen **Euskal Gorrak** elkarteke Zuzendaritza Taldearen ordezkariekin; haiekin harremana sortzeko eta sarea etorkizunean Sareen Sarera batu dadin elkarlan-aukerak bilatzeko lehen hurbilpena izan zen.



“EHSSren aitorpen juridikoa eta sustapena” tailerra

Sareen Sarearen jardueraren EHSSren sare eta entitateetara hurbiltzeko eta barne-kohesioa sustatzeko helburuz, maiatzean **“EHSSren aitorpen juridikoa eta sustapena”** izeneko tailer bat eman genuen. Tailer hori FEVASen (FEVAS en plena forma) entitateetara zuzendutako prestakuntza-tailerren parte izan zen.



EHSS indartzea

Barne Sendotzerako Batzordeak **Barometroaren** (haren diseinuan parte hartu genuen) txostenaren zirriborroa kontrastatu du. Era berean, **EHSSren Liburu Zuria** osatzeko datu-bilketan ere parte hartu dugu.

EHSSren sendotzeari eta dinamizatzeari dagokionez **egindako akordioez** honako alderdiak azpimarra ditzakegu:

- ➡ **Sareen Sarea eta Fiare Banku etikoaren kolaborazio-akordioa;** haren bidez, ekonomia sozialerako finantza-entitateak produktuak eta zerbitzuak baldintza onetan jartzen ditu Sareen Sarearen babespeko entitateen eskura.
- ➡ **Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialeko entitateen Taularekin kolaborazio-akordioa;** maiatzaren 13an sinatu zen, bakoitzaren proiektuetan errefortzu gisa kooperazioan aritzeko eta arretarako komunitate-ereduak sustatzeko.
- ➡ **Sareen Sareak Innobasquekin duen hitzarmenaren** harira, 2019an bilera egin genuen EHSSko entitateetan berrikuntzaren inguruko tresna diagnostikoa prestatzeko.

2.2. Gobernantza eta eragin proaktiboa

Sareen Sareak 24 kontseilu eta fororen eta estatuko zein Europako 35 plataformaren informazioaren transmisioa eta trukea errazten ditu. Horietan, elkartea osatzen duten sareen bidez parte hartzen dugu.

Gainera, Sareen Sareak laguntza eta koordinazioa eskaintzen die **Elkarrizketa Zibileko Mahaian** eta **Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean** (EEGAB) parte hartzen duten pertsonen eta sareen. Sareen Sareako koordinatzaileak 2019an egin ziren EZMren 4 saiotan ere parte hartu zuen.



EHSSren Sustapen Estrategiaren Jarraipena egiteko Batzordea edo Taldea 2019an sortu zen formalki; urtean zehar 5 bilera egin ditu (Kontzertu Sozialaren dekretuko neurri espezifikoak aparte).

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari (EEGAB) dagokionez, otsailean Bordelera joanginen Eusko Jaurlaritzaren ordezkari itza batekin eta EEGABeko ordezkariekin. Bisita EEGABEn eta Akitania Berriko CESER elkartearen arteko aldebiko kooperazioaren harira egin zen; zehazki, bi lurraldeetako hirugarren sektore sozialaren eta gizarte-zerbitzuen ingurukoa izan zen.



2019an Sareen Sarearen bitartez **hirugarren sektore sozialeko sareek EEGABeri aurkeztu dizkioten proposamenak** gai hauen bueltakoak izan dira: Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen aurreproiektua; arreta goiztiarraren arloko lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluen, ikasketen eta lanbide-gaitasunen katalogoari buruzko Dekretuaren proiektua; familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko dekretu-proiektua; Gazteriaren Euskal Legearen proiektua.

Gainera, martxoan **IV. Inklusio Planaren jarraipenerako erakunde arteko Batzordearen Lan Taldearen** bileran parte hartu genuen, eta bertan, gure proposamenak aurkeztu genituen 2017-2021 Planaren aldaketan eta hari buruzko 2018ko jarraipen-txostena ixtearen inguruan.


Sareen Sareako presidentek azaroaren 30ean elkartearen lehenago atxikia zitzaion **Migraziorako Euskal Itun Sozialaren** aurkezpen solemnean parte hartu zuen.



Eusko Legebiltzarrean bi aldiz egon da Sareen Sarea 2019an. Urtarrilean, presidentek eta koordinatzaileak **"Gizarte Zerbitzuen Legearen 10. urteurrena"** jardunaldian parte hartu zuen. Urriaren 4an, biek agerraldia egin zuten **Eusko Legebiltzarreko Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearen** aldaketaren inguruan. Azken gai horri buruz, Sareen Sareak dokumentazioz justifikatutako hiru proposamen aurkeztu zituen 2017 eta 2019ren artean.



Administrazio publikoetako maila guztiekin batera jardunez, Sarean Sarea **Euskadiko Gobernu Irekirako Aliantzaren Foru Erregularraren** partaide izan zen (bi bileratan), **Foro Irekian** (hiru bileratan) parte hartu zuen eta baita bostetik bi **Konpromiso Taldetan** ere, **“Euskadiko Gobernu Irekirako Aliantzaren Ekintza Plana 2018-2020”**-rekin. Sareen Sareak gizarte zibil antolatuaren izenean parte hartzen du, beste sei gizarte-eragilerekin batera.



Gizarte zibila indartzeko eta plana hiritarrentzat ulergarriagoa izan dadin haren komunikazio-plana hobetzeko beharrari erantzuteko, **gizarte zibilaren bilkura-foro bat** eta Foro Erregularrari lotutako **Komunikazio Batzorde bat** sortu dira.



Irailaren 11n bilera bat egin genuen Gizarte Politiketako sailaren Sailburuordetzarekin **Euskadiko Aurrekontuen Lege-aurreproiektuaren** inguruan. Bertan, Sareen Sareak sailarekin kontrastatu ditu aurkezteko asmoa duen alegazioak. Irailean bertan, Eusko Jaurlaritzari bi proposamen egin genizkion **sareen finantzazioa hobetzeko**. Alderdiek gai honi 2020an heltzea adostu zuten.

Maiatzaren 9an, Sareen Sareako koordinatzaileak 2050eko **Hiri Agendari buruzko lan-jardunaldietan** parte hartu zuen, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzaren Sailak gonbidatuta.

2019ko foru- eta udal-hauteskundeak

2019ko foru- eta udal-hauteskundeen harira, alderdi politikoei eta gizarteari zuzendutako dokumentu bat egin dugu: **“2019ko foru-hauteskunde eta udal-hauteskundeetarako Sarean Sarearen 19 proposamen”**. Martxoan, dokumentua argitara atera ondoren, bilera egin genuen Elkarrekin Podemosen ordezkarietarekin, eta beste bat apirilean; bigarren hori Bilboko alkatearekin.

19 PROPUESTAS DE SAREEN SAREA PARA LAS ELECCIONES FORALES Y MUNICIPALES DE 2019

El Tercer Sector Social de Euskadi expone a los partidos políticos vascos 19 propuestas para avanzar hacia un modelo social más igualitario e integrador, que garantice la protección social, la accesibilidad universal y diseño para todas las personas en todos los ámbitos, una economía solidaria al servicio de la ciudadanía, el respeto a la diversidad, la promoción de la convivencia y la integración, la cooperación internacional y el fortalecimiento de la iniciativa social.




Sareen sarea
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Iparraguirre, 9
48009 Bilbao
Tel. 946 569 230
info@sareensarea.eu
www.sareensarea.eu

Politika publikoetan duen eragina

2019an bilerak egin ditugu eta harremana izan dugu **Jaurlaritzarekin** eta Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten **hainbat talde politikorekin**. Helburua proposamenak aurkeztea, eztabaidatzea eta ondorengo gai hauetan eragin politikoa izatea izan da:

- ⇒ Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea
- ⇒ Kontzertu Sozialaren Dekretua
- ⇒ EAEko Diru Laguntzen Legearen aurreproiektua.
- ⇒ Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Estrategia: 2018-2020 Legegintzaldiko Plana eta 2018 Ekintza Plana
- ⇒ IV. Gizarteratze Plan Aktiboa 2017-2021
- ⇒ Euskadiko Gobernu Irekirako Aliantzaren Ekintza Plana 2018-2020
- ⇒ Migraziorako Euskadiko Itun Soziala
- ⇒ Euskadiko Hiri-Agenda 2050



2.3. Harremanak eta aliantzak

2019an beste sektore-plataforma batzuekin, gizarte-eragileekin eta unibertsitateekin dugun harremana sendotu dugu.

Taula d'Entitats del Tercer Sector Social de Catalunya

Maiatzaren 13an kolaborazio-hitzarmena sinatu genuen **Kataluniako Taularekin**, elkarrekin esku-hartzeko eredu komunitario baten proiektua garatzeko. Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren Entitateen Taula da Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakunde guztiak ordezkatzeko dituen elkarte.



Hitzarmena Taularen ordezkaritza batek Euskadira egin zuen bisitan sinatu zen. Taulak hainbat bilera egin ditu Sareen Sarearekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, baita EHSSko hainbat entitate-zentroekin ere.



Sareen Sarea elkarlanean aritu da Taularekin; elkarrekin antolatu dute Taularen **Errenta Minimoen Jardunaldietarako** Euskadiren inguruko mahaia. Jardunaldi horietan Gasteizko udaleko sindikoak, Lanbideko diru-sarrerak bermatzeko errentaren arduradun teknikoak eta Sareen Sarearen ordezkari batek parte hartu zuten.

Estatuko Hirugarren Sektore Sozialaren Plataforma

Espainiako Hirugarren Sektore Sozialaren Plataformarekin **bi hilabete behin** elkartzen gara, ohiko informazioa eta dokumentuak trukatzeko. Urriaren 30ean, Madrilen elkartu ziren Sareen Sareako presidentea eta Hirugarren Sektore Sozialako Plataformako presidentea, bi erakundeen arteko elkarlanaz aritzeko. Lehenago, zehazki irailean, Lurralde Koordinaziorako Batzordea sortu zen, zeina plataformari adskribitutako hirugarren sektore sozialeko lurraldeko mahaia dituzten hamar autonomia erkidegok osatzen baitute.



REPS 2020 Kongresua

Espainiako **Gizarte Politiketako VIII. Kongresuaren** Batzorde Antolatzailean parte hartu dugu; ekitaldia bera 2020an egingo da Bilbon. Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta SIIS zentroak ere parte hartu zuten.



Unibertsitateak

2019an Sareen Sarea zenbait aldiz aritu da **UPV/EHUREkin** eta **Deustuko Unibertsitatearekin** elkarlanean:

⇒ **“Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren eta unibertsitateen arteko lankidetzari eta ikerketari buruzko II. tailerra”**. Bizkaiko eta Sareen Sareako Hirugarren Sektorearen Behatokiak elkarrekin antolatu zuten tailer honetan UPV/EHUK, Deustuko Unibertsitateak eta SIISeko eta EDEko ikerkuntza-zentroek parte hartu zuten.

⇒ **Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza graduondokoa**. Sareen Sareak SIISekin elkarlanean jarduten du UPV/EHUK eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako graduondoko honetan. 2019ko otsailean bi modulu eman genituen.

2019ko irailean, Sareen Sareako koordinatzaileak eskola bat eman zuen **Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Masterrean**. Beste gai batzuen artean, EHSSrekin lotutako proiektuak eta ikerkuntzak landu ziren.

⇒ Sareen Sarea koordinatzaileak bilera egin zuen **UPV/EHUREn Gizarte Langintzako** dekanotzarekin Gasteizen, gizarte-langintzako ikasleen ikasketa-praktiken harira.

2019ko uztailean, Sareen Sareak Deusto Alumnirekin batera (Deustuko Unibertsitatea) **EHSSko entitateei zuzendutako jardunaldi ireki bat** antolatu zuen, ikasleei ikasketetatik gizarte-erakunde eta enpresetara lan-munduratzeko laguntzeko tresnak ezagutarazteko.



Confebask

Sareen Sarearen ordezkaritza bat 2019ko maiatzean berriz elkartu zen enpresa-konfederazioaren Enplegu eta Prestakuntza arduradunekin Bilboko egoitzan. Helburua bi elkarteetan **enpleguaren inguruko erronkei** aurre egitea eta kolaborazio-puntuak bilatzea izan da.

The logo for ConfeBask, featuring the word "ConfeBask" in a sans-serif font. "Confe" is in blue and "Bask" is in green.

2.4. EHSSren posizio soziala.

Ezinbestekoa da sektorearen sustapena eta aitorpena, **eragin publikoa eta bestegizarte-taldebatzuekin harreman estrategikoak**, kolaboraziozkoak eta aliantzazkoak eraikitzea Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala erreferentziazko gizarte-eragileen artean kokatzeko duen helburua betetzeko.

Gure mezua EAEko gizarteari zabaltzeko, **topaketa eta komunikazioa errazten duten hainbat tresna** erabiltzen ditugu: ekitaldi publikoak, komunikabideak, informazioaren eta komunikazioaren eta ikus-entzunezko euskarrien teknologiak.



Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna 1205

EHSSk 2019an posizioari, sustapenari eta gizarteari zabaltzeari dagokionez izan duen mugarririk nabarmenena **1205 Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Egunaren** bigarren edizioa izan da; maiatzaren 13an egin zen, Gasteizko Artium museoan.



Ekitaldiaren aurretik, komunikazio-kanpaina bat egin zen **“Zoragarria da partaide izatea”** lelopean, sektorearen sustapenean eta aitorpenean lan egiteko.



Azpimarratzekoa da bertan izan zirela **Eusko Legebiltzarreko** eta **Eusko Jaurlaritzako** agintari nagusiak, **Iñigo Urkullu lehendakaria** buru. Legebiltzarren ordezkaritza duten talde politiko guztiak ere han izan ziren, bai eta foru-erakundeetako arduradunak eta Gasteizko alkatea ere. Halaber, beste gizarte-eragile batzuk ere egon ziren, Elkarritzeta Zibileko Mahaikoak, gizarte-ekonomiakoak, bai eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sareen eta erakundeen ordezkaritza zabala ere. Osotara, **240 pertsona baino gehiago** bertaratu ziren ekitaldira; horrek esan nahi du beste urte batez aurreko urteetakoa baino parte-hartze kopuru handiagoa izatea lortu dela. Ekitaldiak inpaktu handia izan zuen Euskadiko komunikabideetan.



Sare Berri: buletin digital berria

2019ko apiriletik hasita, Sareen Sareak beste **komunikazio tresna berri bat** jarri du martxan barne- eta kanpo-komunikazioa indartzeko (lehenengo eta bigarren mailako EHSSko entitateekin): Sare Berri buletin digitala. 2019an 115 harpidedun izan ditu.



Sareen Sarea EITBn

Gizarte-proiektzioari dagokionez EHSSk 2019an izan duen mugarririk esangurtasuenetakoa **Euskadin Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren arteko Kolaborazio Akordioa** sinatzea izan da; abenduaren 18an sinatu zen, Sareen Sarearen egoitzan.

Hitzarmen honek bi urteko indarraldia izan ohi du (2020-2021), eta EHSS sustatzeko helburua du. Akordioak **urtean zortzi elkartasun-kanpainaren hedapena** nola egin jasotzen du; horiek gizarte-ekimeneko sare eta erakundeen jarduerak, oinarri soziala eta ekitaldi handiak eta efemerideak ezagutaraziko dituzte, baita pertsonarik ahul eta kalteberenen eskubideak ere. Sareen Sareak Eusko Jaurlaritzari hitzarmen-proposamena egin zion 2019ko udazkenean, **EHSSren Sustapen Estrategia bultzatzeko** esparruan.

Sinatzeko unean **Beatriz Artolazabal** kontseilaria, **Maite Iturbe** EITBko zuzendari nagusia, Pablo González Sareen Sareako presidentea eta Soraia Chacón, Sareen Sareako Komunikazio Batzordeko eta Zuzendaritza Taldeko kidea egon ziren.



Radio Popularrekin kolaborazio-hitzarmena

2019an Radio Popularren “**Es posible**” saioan parte hartzen jarraitu du Sareen Sareak; hari atxikitako sare eta entitate gehienek parte hartu dute bertan. Juanma Jubera kazetariak zuzendutako programa honetan entitateek beren errealitatearen, egiten duten lanaren, dituzten proiektu berrien edota ekitaldi puntualen berri emateko aukera izan dute.



Parte hartu dugun jarduerak

2019an hauekin egin dugu bat...

-  Donowe proiektuarekin, apirilaren 9an.
-  Anesvadekin, irailaren 18an.

...eta ekitaldi hauetan parte hartu dugu:

-  «Ekintzailtza Soziala eta Inpaktuzko Inbertsioa» BBKren jardunaldietan, urtarrilaren 10ean.
-  EAPNren “Gizarte bazterkeria eta komunikabideak” II. Jardunaldian, urtarrilaren 24an.
-  Deustuko Unibertsitatearen Plan Estrategikoaren aurkezpenean, martxoaren 22an.
-  BBK-Deiaren Elkartasun Sarien IV. edizioan, ekainaren 12an.
-  ONCEren eguna Bilbon, irailaren 19an.
-  “Kooperazio publiko-pribatuaren oraina eta etorkizunari” buruzko jardunaldian, urriaren 23an.
-  Eusko Jaurlaritzak antolatutako “Gobernantza Publikoa” jardunaldietan, azaroaren 12an.
-  Deustuko Unibertsitateko ikasturte hasierako ekitaldian, irailaren 18an.
-  Batxilergoko ikasleekin Sareen Sarearen egoitzan egindako ekonomia sozial eta solidarioaren inguruko prestakuntza-saioan, abenduaren 13an.

Zer komunikatu dugu?

Agerraldiak komunikabideetan

2019an Sareen Sareak komunikabideetan egindako 30 agerraldi baino gehiago zenbatu ditugu.

Hautaketa honek bost garrantzitsuenetakoak ditu:

- ➡ **Noticias de Gipuzkoa:** [*"El Tercer Sector presenta propuestas sociales a los partidos"*](#).
- ➡ **Telenorte:** [*"Día del Tercer Sector Social de Euskadi"*](#).
- ➡ **La Vanguardia:** [*"El Tercer Sector de Euskadi y Cataluña apuestan por un modelo más comunitario"*](#).
- ➡ **Naiz.eus:** [*"Fiare Banca Ética y Sareen Sarea refuerzan servicios dirigidos a entidades del sector social"*](#).
- ➡ **Eitb.eus:** [*"Acuerdo para la promoción del Tercer Sector Social entre EiTB y Gobierno Vasco"*](#).



Sareen Sarea sare sozialetan

Sareen Sareak webgune bat, buletin digital bat eta hainbat sare sozialetan profilak ditu. Jarraian, gure gizarte-sareetan izan dugun eraginari buruzko daturik garrantzitsuenak azaltzen dira.



218 txio | 174.905 inpresio | 3.653 interakzio
176 jarraitzaile berri




141 post | 43.882 pertsonako irismena
126 jarraitzaile berri



13 bideo eta 1.070 bistaratze



28 albiste eta 8.141 bisita



Kontuak argi

KONTUAK ARGI

5

DIRU-SARRERAK

Bazkideen eta afiliatuen kuotak	14.000,00
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	157.285,71
Bestelako diru-sarrerak	15.304,12

DIRU-SARRERAK GUZTIRA: 186.589,83

GASTUAK

Errentamenduak eta kanonak	24.344,06
Konponketak eta mantenimendua	3.417,71
Zerbitzu profesionalak	18.717,86
Aseguruetako primak	232,88
Banku-zerbitzuak eta antzekoak	104,98
Publizitatea, propaganda eta HHPP:	3.822,31
Hornidurak	2.861,64
Beste zerbitzu batzuk	4.847,23
Beste zerga batzuk	373,47
Langileen gastuak	88.717,46
Beste kudeaketa gastu batzuk	4.771,19
Finantza-gastuak	678,31
Ibilgetu materialaren amortizazioa	9.097,42

GASTUAK GUZTIRA: 181.986,52



Sareen sareea

**Euskadiko Hirugarren
Sektore Soziala**

**Tercer Sector Social
de Euskadi**

www.sareensarea.eus